



Lehen Hezkuntza

6. Moduluaren gida:
“ESKOLA GAITASUNAK ETA EUSKAL
CURRICULUMA” DIZIPLINARTEKO
LANA (DAL) EGITEKO GIDA

2026-2027

Aurkibidea

1. DAL-AREN AURKEZPENA	3
1.1. Helburuak	4
1.2. Antolakuntza eta dedikazioa	5
2. ARAUTEGIA ETA SALBUESPENAK	6
3. GARATU BEHARREKO GAITASUNAK ETA IKASTEAREN EMAITZAK	7
4. LANAREN GARAPENA	8
4.1. Egin-beharreko atazak	8
4.1.1. Mahai-joko diseinua	8
4.1.2. Lan idatzia	9
4.1.3. Mahai-jokoaren aurkezpena	9
4.2. Moduluaren plangintza	9
4.3. Lan idatziak egiteko arauak	10
5. EBALUAZIOA: DALA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK	10
6. BIBLIOGRAFIA	11
7. ERANSKINAK	13
1. Eranskina: Lana ebaluatzeke irizpide-errubrika	13
2. Eranskina: Koebaluazio-orria	15

1. DAL-aren aurkezpena

5. moduluaren aurkezpenean adierazi genuen bezala, gaitasunen araberako curriculum batek planteatzen dituen aldaketa handienetako bat da birplanteatzea nola irakatsi behar den eta zeintzuk diren estrategiarik egokienak ikasten ikasteko, egiten jakiteko edo gizartean esku hartzeko.

ELGAren eta Europar Batasunaren proposamenak erreferentziatzat hartuta, Euskal Curriculumak oinarritzko gaitasunen garapenaren aldeko apustua egiten du derrigorrezko hezkuntzan (175/2007 eta 97/2010 Dekretuak).

Bosgarren DALa zentratu da Bizkaiko inguruneak eskaintzen digun baliabide anitzetako bat ezagutzean eta aztertzean. Zehatzago, lan talde bakoitzak, aukeratutako baliabidearen azterketa sakona burutu ondoren, Lehen Hezkuntzako geletan diziplinarreko erabilera baterako izan ditzakeen ahalmenak adierazi behar zenituzten, betiere derrigorrezko hezkuntzako oinarritzko gaitasunen garapenari begira.

Gure ustez inguruneak eskaintzen dizkigun baliabideen zerrenda bat edukitzeak Lehen Hezkuntzako geletako haurrekin egin beharreko lana erraz diezazueke etorkizuneko irakasle zareten horiei. Zuei dagokizuenetz, interesgarria litzateke Bizkaiko udalerrien lurralde banaketaren maparen gainean lan talde ezberdinek aukeratu dituzten baliabide ezberdinak kokatzea.

5. moduluko irakasle taldeak, 5. moduluan landutakoa kontuan izanik, modulu honetan ondoko gaia jorratzea erabaki du **Eskola irteerak** edo landa lana baliabide didaktiko gisa: Irteera proposamen bat diseinatzea eta lantzea aukeratutako ingurune baliabideari egokitua.

Moduluko Diziplinarreko Lana era honetan definitzen da: mahai joko bat diseinatzea modulu honetako irakasgaiekin lotura duena eta 5. moduluan landu den irteerarekin zerikusia duena, aukeratutako baliabideak Lehen Hezkuntzako ikasleekin (6-12 urte) diziplinarreko lan bat egiteko eskaintzen dituen ahalmenak kontuan izanik. Proposamen hori mahaijoko itxura duen DINA2 orri batean eta horren aurkezpenean jasoko da.

Etorkizunera eta komunitatera proiektaturiko eskola batentzat, gelatik ateratzeak suposatzen du eskola esperientziak bizitzeko aukera ahalbidetzen duten gune guztietara eramatea; esperientzia horien gainean ezagutzak eraikiko dira eta diziplinen ikasketa esperientziara hurbilduko dira. Gainera, gelatik ateratzeak ezagutza formalari esanahia emango dioten ekintza eta gizarte parte-hartze konpromisoak hartzera eraman dezake, eta eraman beharko luke.

Zentroak gelatik kanpoko irteerei ematen dien trataerak erakusten du maisu-maistrek ingurunearen azterketa nola ulertzen duten, baita irakaspen-ikaspén prozesuaz duten kontzepzioa ere.

Eskola irteerak beti izan dira irakaskuntza berritzaileenaren ezaugarrietako bat. Proposamen didaktiko franko egin dira ingurunearen ikerketan eta iraganaren aztarnen azterketan oinarriturik; denak ala denak, gelaren barrukoaren eta gelatik kanpokoaren arteko lotura tinkoa eta jarraipena bermatzen duen eszenatoki didaktiko batean garatzen dira.

XX. Mendearen hasieratik Eskola Berriaren pedagogoen eskola “esperientzialagoa” eta egunero errealitatearekin lotura handiagoa zuena eskatzen zuten. Ingurunearen baliabide bat errealitatearen zati bat da. Ondorioz, baliabide hori ulertzea errealitatea ulertzea ere bada; horretarako, beharrezkoa da gelatik irtetea, behatzea eta aztertzea gelako ikaspenak osatuko dituztenak deskubritzeko, ikertzeko eta jasotzeko.

Hein handi batean landa lana funtsezko bihurtzen da: errealitatearen espazio- eta denboradimentsioen pertzepzioa ezin da planteatu bakarrik gela barruan, azterketaren xede diren objektuekin harreman zuzena eskatzen baitute.

Azkenik, ohartarazi nahi dugu landa-lanak talde-lana, koordinazioa eta sozializazioa eskatzen dituela, eta, hortaz, oso interesgarria dela balioen hezkuntzaren ikuspegitik. Horrez gain, elkarbizitza-arauak lantzeko aukera aparta ematen du: gelatik kanpo garatzen denez, ikasleak bideetatik eta kaleetatik ibiliko dira, garraio publikoa hartuko dute, edo museo, liburutegi edo interpretazio-zentroetan ibiliko dira. Hortaz, irteeraren aurretik, finkatuko da zer egin daitekeen eta zer ez, jarduera edo irteera egiten den bitartean: nola mugitu garraio publikoan, bisitatuko diren establezimenduetan ozenegi ez hitz egitea, ibilbideetan ez molestatzeko, jarduera jakin baten arrakasta bermatzeko jarrera egokia izatea eta abar.

Jarrerari eta balioei dagozkien alderdiak ondare-arazoetatik abiatuta lantzea ere interesgarria izango da. Normalean, landa-irteerek inplikatzeko ingurune biogeografikoan, historikoan edo artistikoan lan egitea, eta horrek eramaten gaitu ingurune horien kontserbatze-baldintzak, edo haien kontserbazioa bermatzeko jarrera eta jardura proaktiboak lantzea. Interesgarria da irteerak aprobetxatzea ikasleak ingurunearen eta ondare baliabideen kontzientzia har dezaten eta haien kontserbazioaren garrantziaz eta moduez (ekintzak eta jarrera proaktiboak) ohar daitezen.

OHAR GARRANTZITSUA: Ezinbestekoa da Lanaren garapen osoan zehar, uneoro, diziplinarteko ikuspegia gogoan izatea, Lanaren oinarritzko helburua baita.

1.1. Helburuak

Jarraian, seigarren Moduluko Diziplinarteko Lan honetan garatzekoak diren helburuak zehaztuko dira:

1. helburua

Bizkaiko baliabide baten inguruan eskolaz kanpoko eta diziplinarteko proposamen didaktikoak diseinatzea eta aplikatzea, moduluaren curriculum-arlo desberdinei lotutako jarduerekin mahai-joko bat eginez, Lehen Hezkuntzako ikasleen artean ikaskuntza esanguratsuak eta testuinguruan kokatuak errazteko.

2. helburua

Eskolaz kanpoko baliabideak kritikoki aztertzea eta baloratzea, ikasgelatik kanpoko irteeren hezkuntza-onurak integratuz jolas- eta hezkuntza-dinamiken diseinuan, ikasleengan ingurunearekiko jarrera arduratsuak, kritikoak eta proaktiboak sustatzeko.

3. helburua

Ingurunean oinarritutako ikaskuntza-esperientziak planifikatzea, aukeratutako eskolaz kanpoko baliabidearen testuingurura curriculum-edukiak aukeratu eta egokituz eta jolas-jardura egituratuetan agertuz, irteera didaktikoek Lehen Hezkuntzako irakaskuntza-ikaskuntza estrategia gisa duten balio pedagogikoa ezagutzeko.

1.2. Antolakuntza eta dedikazioa

- 6. modulua: “Eskola Gaitasunak eta Euskal Curriculumak” Lehen Hezkuntzako graduaren 3. mailan lantzen da, bigarren lauhilekoan.
- Moduluko Diziplina arteko Lanak (DAL) 5 kreditu balio ditu, ondoko irakasgaiei dagozkienak:

- Kreditu 1: Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika.
- Kreditu 1: Gizarte Zientziak eta beren Didaktika II.
- Kreditu 1: Matematika eta bere Didaktika II.
- Kreditu 1: Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako ikasgelan II.
- Kreditu 1: Atzerriko Hizkuntza eta bere Didaktika.

(Ikasgai guztietan, bukaerako notaren gaineko puntu 1 suposatuko du)

- Salbuespenik ezean, 5. moduluko DALerako osatu ziren lantalde berberak mantenduko dira 6. moduluko lan hau burutzeko.
- DALa burutzeak 125 lanordu eskatzen dizkie ikasleei, 5 astetan zehar banatuta. Irakasleen taldeak erabaki du Moduluko Lanari esleituko zaizkion asteak ikasturteko 21.a eta 22.a izatea. Bi aste horietan, DALaren garapenera bideratutako saioak egingo dira, bai saio magistraletan bai GA saioetan, ikasturte bakoitzeko antolaketaren arabera.
 - Astelehenean: talde guztiak (Hirueleduna, 31 eta 32) goizeko 08:30ean Juliana Aretora deituak izango dira. Bertan, koordinatzaileek moduluaren aurkezpena egingo dute, gainerako moduluko irakasleen laguntzarekin. Aurkezpena amaitu ondoren, ikasleak esleitutako tutorearekin bilduko dira lanean hasteko.
 - Hurrengo asteetan: dagokion irakaslearekin tutoretzak eta lana egiten jarraitzea.
 - Aste horietan moduluko irakasleak ikasleen eskura egongo dira Zentroan bere klase magistralei, gelako praktikei eta tutoretzei dagozkien ordutegietan.
- Lantalde bakoitzarekin gutxienez 3 tutoretza-saio egongo dira.
- Printzipioz talde hirueledunean DALa euskaraz egingo da, tutorearekin bestelako akordiorik ez dagoen bitartean.

2. Arautegia eta salbuespenak

Ikasle guztiek nahitaez egin behar dute Moduluko Diziplinarteko Lana.

Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplina arteko edukia duenez, ikasleak jarraikako ebaluazio sisteman parte hartu ezin badu justifikatutako arrazoiengatik (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, %33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak). Ebaluazioari buruzko atalean aipatu bezala ebaluatuko da (9. or.). Egoera horretan dauden ikasleak moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan otsailaren 20a baino lehen, eta honek behar dituzten informazioak emango dizkie, hala nola, lana entregatzeko eta defendatzeko data zein tokia. Lan horretarako ez da egongo tutorerik eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.

Proba horren balioa modulu honetan DALari dagokion berdina izango da. DAL horren kalifikazioa ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da (ekaina- uztaila).

Salbuespenak

1. Mugikortasun-programetan dauden ikasleak salbuetsita egongo dira DAL atazatik, salbu eta modulu bereko gutxienez 3 irakasgaitan matrikulatuta badaude.

2. Atzeritik mugikortasun-programen bidez datozen ikasleek nahitaez egin beharko dute DAL zeregina, baldin eta gutxienez 3 ikasgaitan matrikulatuta badaude. DAL ataza egiteko hizkuntza esleitutako tutorearekin adostuko da.

3. Graduako ikasleek DAL ataza egin beharko dute, baldin eta modulu bereko gutxienez 3 irakasgaitan matrikulatuta badaude. Gainerako kasuetan, ikasleak salbuetsita egongo dira.

4. DAL atazatik eta gaiaren amaierako azterketan dagokion galderatik salbuetsi den kasuetan, gaiaren kalifikazioa 10en gainean izango da, DALari dagokion ehunekoa aplikatu gabe.

5. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) bakar bateko DALa burutuko dute, honako irizpideen ordenari jarraiki: 1. Inoiz egin ez duten moduluko DALa egin beharko dute lehenik; 2. Ikasleak aurretik modulu bietako bat bera ere egin izan ez balu, irakasgai gehien egiteke dituzten moduluko DALa egin beharko du; 3. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.

Aurreko kasuetako edozein kasutan, moduluaren edo titulazioaren koordinatzailearekin hitz egitea gomendatzen da, egoeraren berri emateko. Nolanahi ere, ebaluazioari buruzko araudi orokorra hartuko da kontuan (EHAA, 2017ko martxoaren 13a, 1131. zk.).

3. Garatu beharreko gaitasunak eta ikastearen emaitzak

Jarraian, Moduluko Diziplinarreko Lan honetan garatzeko gaitasunak eta ikaskuntzaren emaitzak zehaztuko dira (ikus Taula 1).

Taula 1. 6. DAL-ean garatzekoak diren gaitasun eta ikaskuntzen emaitzak.

Gaitasunak	Ikaskuntza-emaitzak
Curriculumeko arloek Lehen Hezkuntzako ikasleen funtsezko gaitasunak garatzeko egiten duten ekarpena aztertzea, diziplinarrekotasuna kontuan hartuta-	Mahai-jokoaren jardueren eta hainbat curriculum-arlotako edukien eta gaitasunen arteko lotura identifikatzen eta justifikatzen du, curriculum-koherentzia eta diziplinarreko integrazioa erakutsiz.
Ikasgelatik kanpoko irteerak baliabide pedagogiko gisa integratuko dituzten proposamen didaktiko kontestualizatuak diseinatzea, ikaskuntza esanguratsuak errazteko.	Mahai-jokoaren diseinu bat egiten du, eskolaz kanpoko irteera batetik eratorritako ikaskuntzak barne hartzen dituen, zuzeneko esperientzia ikasgelako jarduera egituratuetara transferitzen dela agerian utziz.
Ingurunea ikaskuntza-iturri gisa baloratzea eta parte-hartze, errespetu eta gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko jarrerak sustatzea.	Jokoaren jardueretan, hausnarketa kritikoa, erabaki arduratsuak hartzea eta ingurunea zaintzeko konpromisoa sustatzen duten egoerak eta erronkak integratzen ditu.
Lan kooperatiboarekin, parte-hartzearekin, erantzukizun partekatuarekin eta sormenarekin lotutako gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzea hezkuntza-proposamenak diseinatzean.	Lanaren prozesuak eta azken produktuak antolaketara kooperatiboa, zereginen banaketara orekatua, proposatutako dinamiken originaltasuna eta diseinu didaktikoaren koherentzia globala islatzen dituzte.
Euskara eta/edo gaztelania modu egokian erabiltzea eta hezkuntza-testuinguruetan eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko sentsibiltatea erakustea. (Zeharkako gaitasuna 13)	Lana aurkezten du hizkuntza-zuzentasunez, hiztegi akademiko egokiz eta azalpen-argitasunez, hizkuntza modu funtzionalean erabiliz hezkuntza-komunikaziorako eta jardueren diseinurako.

4. Lanaren garapena

Egin beharreko Lana honako honetan datza: landa baliabide batekin lotura duen mahai-jokoa (antzararen jokoa) egitea, Lehen Hezkuntzako maila jakin bateko haur talde bati egokitua eta Zentro jakin batean garatzeko. Irteerak eskolako egun bateko iraupena izango du gehienez ere.

Irteerak diziplinarteko ikuspegia izan behar duenez, antzararen jokoko laukitxoek (bat laukitxo bakoitzeko) bigarren lau hilabeteen ikasten diren irakasgaiak landu behar dira. Horretarako, ezinbestekoa da aukeratutako baliabideak eskaintzen duena egokitzea eta handitzea, orokorrean halako espazioak gai edo irakasgai konkretu bat lantzeko prestatua baitaude.

4.1. Egin beharreko atazak

4.1.1. Mahai-joko bat diseinatzea

Antzararen joko honek 30 laukiko taula izango ditu, eta antzara tradizionalaren antzeko baliabidea izango da. Bi lauki mota aurkeztu behar dira:

- Hautatutako hezkuntza-baliabidean landutako edukiak eta gaitasunak lantzerantz bideratutako jarduerak eta zereginak izango dituzten laukitxoak. DAL 6ak bost jakintza-arlo hartzen dituenek, 15 jarduera diseinatuko dira guztira, hau da, hiru arlo bakoitzeko. Horre gain, aintzat hartzekoa da arlo bakoitzean egiten diren hiru jardueretatik bik gutxienez bi jakintza-arlo desberdin integratu beharko dituztela, moduluan lortu nahi den diziplinartekotasuna bermatzeko.
- Bestalde, diseinaturiko mahai jokoa 15 jarduera berezi izango ditu, 2. taulan zehazten den bezala.

Taula 2. Antzara jokoko laukitxo berezien ezaugarrien deskribapena.

Lauki mota	Lauki kopurua	Azalpen laburra
Antzara	6	Antzaratik antzarara
Zubia	2	Jauzi beste lauki batera
Dadoak	2	Aurrera, jaurtiki dadoak
Ostatua	1	Atsedean txanda batean
Putzua	1	Galdu txanda bat
Labirintoa	1	Atzera hainbat lauki
Kartzela	1	Galdu txandak
Heriotza	1	Itzuli hasierara
Guztira	15	

4.1.2. Txosten idatzia

Txosten idatziak honako alderdi hauek jasoko ditu:

1. Sarrera
2. Irteera baliabidearen deskribapena eta hezkuntza onurak
3. Ikasle taldearen deskribapena: irteera egingo duen taldea (ikasle kopurua, aniztasunarekiko arreta, ikastetxea, lehen hezkuntzako maila, eta abar)
4. Jardueren deskribapena
5. Hausnarketa eta Ondorioak: ikasleek irteera eta jarduerak diseinatzerakoan ikasitarikoari buruzko hausnarketa burutuko dute.
6. Erreferentzia bibliografikoak
7. Eranskinak.

Txosten idatziak, gainera, proposatutako jardueren deskribapena jaso beharko du, puntu hauekin:

1. Jardueraren izenburua
2. Irteeran landutako edukiekiko lotura
3. Beharrezko materialak (eranskinetan)
4. Diseinatutako jarduerak gutxi gora-behera 20 minutuko iraupena izan beharko luke.

4.1.3. Mahai-jokoaren aurkezpena

Tutorearekin adostuko da noiz egingo den mahai-jokoaren aurkezpena tutorearen aurrean. 30 minutuko iraupena izango du aurkezpenak. Bertan, mahai-jokoa egiteko prozesua azaltzeaz eta proposatutako jarduerak justifikatzeaz gain, modu praktikoan egiaztatuko da proposatutako jardueren bideragarritasuna.

4.2. Modulu honen plangintza

Txostena DALaren bosgarren eta azken astean entregatu beharko da.

Moduluaren lehenengo astean (21. astea) irakasle tutorearekin adostuko da zeregin bakoitza noizko egin behar den. Tutorearekin egingo den lehenengo saioan, talde bakoitzarekin ahozko aurkezpenerako datak ezarriko dira. Datak kalifikazioak argitaratu aurrekoak izango dira.

4.3. Lan idatziak egiteko arauak

4.3.1. Alderdi formala

- Lanak, GrAL-eko txostenaren eredua (azala, aurkibidea eta abar) jarraitu behar du.
- Lana, Times NewRoman 12 edo Arial 11 letra motan idatzita egongo da.
- Erreferentzia bibliografikoak APA argitalpen araudiarekin bat etorriko dira (fakultateko webgunean argitaratutakoa hartuko da erreferentziazat).

4.3.2. Gaitasun linguistikoa

Nahitaezkoa da hizkuntza zuzentasunez erabiltzea. Hizkuntza adierazpena zuzena izatea eskatuko da eta akatsak oso nabarmenak direnean edo testua ulergaitza denean (beste hizkuntza batzuetatik egindako itzulpenengatik edo beste edozein arrazoiengatik) lana ez da zuzenduko, ikasleak edo taldeak lana modu egokian entregatu arte. Honako alderdiak hartuko dira kontuan:

- Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna.
- Diskurtsoaren ulergarritasuna.
- Hiztegia eta ortografia.
- Ergatiboa eta komunztadura.

4.3.3. Plagioa

Ezin da beste norbaitek egindako lanaren kopiarik edo imitaziorik aurkeztu. Ikasleek aipua egiteko arauak jakin eta erabili beharko dituzte. Plagioaren susmoak ekar lezake txostena ez onartzea eta, ondorioz, DALa ez gainditzea.

OHAR GARRANTZITSUA: Erabat debekatuta daude behar bezalako errekonozimendurik gabe egindako zintzotasun akademiko ezaren forma guztiak. Adimen artifizialaren erabilerari dagokionez, egindako lanak koherenteak izan behar du EHU unibertsitateak gai honi buruz argitaratutako dokumentuan ezarritako printzipioekin (ondoko [estekan](#) aurki daitekeen "EHU adimen artifizial sortzailea erabiltzeko printzipio eta gomendioak" dokumentuan, hain zuzen ere).

5. Ebaluazioa: DALa ebaluatzeko irizpideak

DALaren kasuistikak:

- Modu jarraian egitea: hiru ikasgaitan matrikulatuta dauden ikasleek modu jarraian egingo dute DALa, eta hala ebaluatuko zaie. DAL atazaren ebaluazioa irakasle-tutoreak egingo du. Prozesua, idatzizko lana, jolasaren diseinua eta aurkezpena ebaluatuko dira. DAL atazaren notaren % 100 izango da. Ebaluazio irizpideak 1.eranskinen errubriketan aurki daitezke.
- Modu ez-jarraian egitea: hiru ikasgai baino gutxiagotan (Practicum ez da kontuan hartzen) matrikulatuta dauden ikasleek modu ez-jarraian egingo dute DALa, eta irakasle bakoitzak ikasgai bakoitzean ebaluatuko du, froga baten bitartez.

Horrez gain, ikasleek gida honetako 2. eranskinean jasotzen den koebaluazio-orria bete beharko dute.

6. Bibliografía

- Abril, A. (2009). Salidas escolares interdisciplinares: materiales didácticos. *Enseñanza de las Ciencias: Revista de investigación y experiencias didácticas*, (extra), 1868-1876.
- Arbués, E. eta Naval, C. (2015). Los museos como espacios de aprendizaje desde la perspectiva del profesorado. *Education Sciences & Society*, 5(2).
- Benejam, P. (2003). Los objetivos de las salidas. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia* (36), 7-12.
- Boisvert, F. (2015). *Juegos divertidos en educación primaria: para desarrollar la observación, la memoria, la reflexión, el ingenio*. Narcea.
- Borgui, B. (2010). El patrimonio de la historia y su uso didáctico. *Investigación en la Escuela*, (70), 89-100.
- Calderón, G. E. C. (2021). Las actividades lúdicas para el aprendizaje. *Polo de conocimiento: Revista científico-profesional*, 6(4), 861-878.
- Camacho, F. G. (2015). *Incidencia en la planificación curricular de las actividades de excursión, campamentos y desarrollo de valores en las unidades educativas (examen complejo)*. Machala, Ecuador: UTMACH, Unidad Académica de Ciencias Sociales.
- Cantó, J., Hurtado, A. eta Vilches, A. (2013). Una propuesta de actividades “fuera del aula” sobre sostenibilidad para la formación del profesorado. *Enseñanza de las ciencias: revista de investigación y experiencias didácticas*, (Extra), 638-642.
- Chamorro, I. L. (2010). El juego en la educación infantil y primaria. *Autodidacta*, 1 (3), 19-37.
- Del Carmen, L. M. (2010). Salir para conocer, salir para participar. *Alambique: Didáctica de las Ciencias Experimentales*, 17 (66), 56-59.
- Delgado, E. eta Alario, M. T. (1994). La interacción fuera del aula: Itinerarios, salidas y paseos. *Tabanque: Revista pedagógica*, 9 (44), 155-178.
- Estorch, P., Gómez, M. D., González-Pérez, E., Quesada, M. D. eta Quijasmo, R. (1993). *Salimos y aprendemos*. Sevilla: Junta de Andalucía. Conserjería de Educación y Ciencia.
- García-Blanco, A. (1988) *Didáctica del Museo: el descubrimiento de los objetos*. Madrid: Ediciones de la Torre.
- Garrachón, L. (2015). *Las salidas escolares en primaria* (TFG). Universidad de Valladolid.
- González, A. (2009). La importancia de la excursión didáctica y su planificación. *Revista Digital Innovación y Experiencias educativas*, 17, 1-8.
- Gradu eta Eraldaketa Digitalerako Errektoreordetza, Ikerketa Errektoreordetzarekin lankidetzan (2005). *EHUn adimen artifizial sortzailea erabiltzeko printzipio eta gomendioak*. <https://www.ehu.eus/documents/d/bilboko-hezkuntza-fakultatea/ehun-aa-erabiltzeko-printzipio-eta-gomendioak>
- Guisasola, J. eta Morentin, M. (2007). ¿Qué papel tienen las visitas escolares a los museos de Ciencias en el aprendizaje de las Ciencias? Una revisión de las investigaciones. *Enseñanza de las Ciencias*, 25 (3), 401-414.
- Guisasola, J. eta Morentin, M. (2010). Concepciones del profesorado sobre visitas escolares a Museos de Ciencias. *Enseñanza de las Ciencias*, 28 (1), 127-140.
- Hernández-Valverde, M. (2010). *Conducción de grupos en la naturaleza. Guía de estudio*. Costa Rica: UNED, Vicerrectoría Académica, Escuela de Ciencias Exactas y Naturales.
- Hezkuntza Saila eta Elhuyar (2025). *Hezkuntza-eremuan adimen artifizialak erabiltzeko gida*.

Huerta, R. (2011). Maestros, museos y artes visuales: construyendo un imaginario educativo. *Arte, individuo y sociedad*, 23(1), 55-72.

Klaus W. V. (2026). *Psicología positiva en primaria: juegos y actividades*. CCS.

López-Martín, J. A. (2000). Las salidas de campo: mucho más que una excursión. *Educación en el 2000*, 6, 100-1003.

López-Parra, J. (2008). Salidas escolares: aportaciones a la educación. *Revista Digital Ciencia y Didáctica*, 3, 105-110.

López-Ruiz, M. eta Albadalejo, J. (2016). Entorno como realidad de aprendizaje: planificación, organización y desarrollo de salidas escolares en educación infantil. *Espiral: Cuadernos del Profesorado*, 9 (19), 44-55.

Cabanillas, M. eta García-Gómez, M. S. (2016). Escolares sin excursiones: ¿Una consecuencia de la crisis económica? *Educación*, 52 (1), 33-50.

Martínez-Moctezuma, L. (2002). Educar fuera del aula: los paseos escolares durante el porfiriato. *Revista Mexicana de Investigación Educativa*, 7 (15), 279-302.

Melcón, J. (1991). Las excursiones escolares y la educación integral. *Estudios geográficos*, 52 (203), 239-261.

Melgar, F. eta Silvio, D. (2011). Salir del aula... Aprender de otros contextos: Patrimonio natural, museos e Internet. *Revista Eureka sobre Enseñanza y Divulgación de las Ciencias*, 8 (3), 323-333.

Niño, M. C. (2012). *Las salidas escolares en la Educación Primaria*. Palencia de cerca, programa de visitas escolares. 1-53.

Novak, J. D., Gowin, D. B. eta Otero, J. (1988). *Aprendiendo a aprender* (117-134 eta 146- 169). Barcelona: Martínez Roca.

Molina, S. (2011). Las salidas escolares para la enseñanza de la historia en la educación primaria. *Iber: Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia*, (67), 79-86.

Romero, M. (2010). El Aprendizaje Experiencial y Las Nuevas Demanda Formativas. *Revista De Antropología Experimental*, 8, (10), 89-102.

Solas Martínez, J. L., Suárez Manzano, S., Martínez Redecilla, T. eta Ruiz Ariza, A. (2023). *Aprendizaje basado en Juegos como metodología activa en la etapa de Educación Primaria*. Wanceulen Editorial.

Travé, G. (2003). Más allá de las paredes del aula: salidas de investigación escolar. *Kikiriki. Cooperación educativa*, (71-72), 43-46.

Urones, C. eta Sánchez-Barbudo, M.C. (1997). La organización de salidas al entorno en Educación Infantil. *Revista electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 1 (0).

Viladot, P. (2009). ¿Para qué vienen? Expectativas de los docentes en las visitas escolares al museo. *Enseñanza de las Ciencias, Revista de Investigación y Ciencias Didácticas* (extra), 520- 524.

Vilarrasa, A. (2003). Salir del aula. Reapropiarse del contexto. *Iber: Didáctica de las ciencias sociales, Geografía e Historia*, 9 (36), 13-25.

Wass, S. (1992). *Salidas escolares y trabajo de campo en la educación primaria*. Madrid: Ediciones Morata.

1. ERANSKINA: Lana ebaluatzen irizpide-errubrika

Irizpidea	Bikaina	Ona	Nahikoa	Eskasa
1.Landa baliabidearen lotura	Laukiak argi eta garbi lotuta daude landa baliabidearen eduki, jarduera edo leku garrantzitsuekin; hausnarketa eta lotura erreala bultzatzen dituzte.	Lauki gehienek landa baliabidearekin lotura dute; lotura batzuk gehiago garatu daitezke.	Lauki batzuk gainazaleko edo nahasiak dira landa baliabidearekin lotzeko orduan.	Laukiak ez dute landa baliabidearekin lotura argirik.
2.Ikasgai desberdinen integrazioa	Ikasgaiak modu orekatuan integratzen ditu eta arlo bakoitzerako egokiak diren erronkak edo galderak ditu.	Gutxienez 5 ikasgai integratzen ditu jarduera egokiek.	Ikasgai bakarra integratzen du edo lotura oso azalekoa da.	Ez du ikasgaien edukirik argi integratzen.
3. Sormena eta originaltasuna	Laukiak ideia sortzaileak eta askotarikoak dituzte, eta ikasleentzat erakargarriak dira; jokoak elementu berritzaileak ditu.	Idea sortzaileak ditu, baina lauki batzuk errepikakorak dira.	Lauki gutxi batzuk dira sortzaileak.	Ez da sormena ikusten; laukiak monotonoak dira edo ereduak kopiatu dute egokitzen gabe.
4. Jardueren argitasuna eta egokitasuna	Lauki bakoitzeko jarduerak eta erronkak argi idatzita daude, ulergarriak dira eta ikasleentzat mailara egokituta daude.	Jarduera gehienak argiak eta egokiak dira, hobekuntza txikiak behar dituzte.	Jarduera batzuk ez dira ondo ulertzen edo ez dira guztiz egokitzen Lehen Hezkuntzako mailara.	Jarduerak nahasiak, ulertezinak edo adinari desegokiak dira.
5. Itxura bisuala eta antolaketa	Taula, laukiak eta materialak ondo antolatuta daude, garbiak eta ikusgarri erakargarriak dira.	Diseinua antolatuta dago, baina estetika hobetu daiteke.	Oinarrizko antolaketa du baina erakargarritasun gutxi du.	Ez dago antolaketarik eta ikusgarritasun erakargarrik.
6. Bideragarritasuna eta mailaren egokitasuna	Jokoa erraz aplikatu daiteke Lehen Hezkuntzako ikasleekin; haien adinera eta interesetara egokituta dago.	Bideragarria da, doikuntza txikiak.	Bideragarria da baina hainbat egokitzen behar ditu.	Ez da bideragarria edo ez da egokia Lehen Hezkuntzarako.

7. Aurkezpen ahozkoa (banakako nota)	Ahozko eta gorputz-hizkuntza egokiak dira, jarduerak argitasunez azaltzen dira eta baliabide bisualak (jokoa edo beste elementu bisual batzuk) modu eraginkorrean erabiltzen dira diskurtsoa laguntzeko.	Ahozko eta gorputz-hizkuntza onargarriak dira, jarraibideen argitasuna onargarria da eta baliabide bisualak erabiltzen dira diskurtsoa laguntzeko.	Ahozko eta gorputz-hizkuntza hobetu daitezke, jarraibideak ez dira argiak eta baliabide bisual gutxi erabiltzen dira diskurtsoa laguntzeko.	Ahozko eta gorputz-hizkuntza ez dira onargarriak, jarraibideetan ez dago argitasunik eta ez dira baliabide bisualak erabiltzen diskurtsoa laguntzeko.
8. Txosten idatzia. Terminologia, ortografia eta gramatika	Terminologia zabala modu eraginkorrean erabiltzen da eta ortografia zein gramatika guztiz zuzenak dira.	Terminologia egoki erabiltzen da. Lana, oro har, ondo idatzita dago, nahiz eta ortografia eta/edo gramatika akats solteak izan.	Terminologiaren erabilera onargarria da, baina aberatsagoa izan liteke. Ortografia eta gramatika akats batzuk badaude ere, lana oro har ondo idatzita dago.	Maiz terminologiaren erabilera desegokia da. Ortografia eta gramatika akats ugari daude.
9. Txosten idatzia. Ideien aurkezpena: ordena, koherentzia eta logika	Ideiak modu argi eta laburrean azaltzen dira, logikarekin. Lanaren egitura eta ordena antolatzeke, aurkibidea eta epigrafeak eta azpi-epigrafeak behar bezala erabiltzen dira.	Ideiak modu koherentean azaltzen dira lan osoan zehar, nahiz eta argitasuna hobetu daitekeen. Aurkibidearen erabilera egokia da, baina epigrafe edo azpi-epigraferen bat gehiago gehitu liteke lana hobeto antolatzeke.	Ordena eta koherentzia atal batzuetan ageri dira, baina ez dira lan osoan zehar mantentzen, eta hori nabarmen hobetu daiteke. Aurkibidean akatsak daude eta epigraferen edo azpi-epigraferen bat gehiago beharko litzateke lana hobeto antolatzeke.	Ideiak nahasian, inkonstistenteki eta logika faltarekin azaltzen dira. Lana zaila da jarraitzeke. Aurkibidea ez dator bat lanaren edukiarekin eta akats ugari daude.

2.ERANSKINA: Koebaluazio-orria

IZEN-ABIZENAK: _____

Justifikatu zure taldearen ikaskideei jartzen diezun kalifikazioa (0tik 10era) hurrengo galderei buruz:

KOEBALUAZIOA	1. ikaslea	Justifikazioa	2. ikaslea	Justifikazioa	3. ikaslea	Justifikazioa	...	Justifikazioa	...	Justifikazioa
	0-10		0-10		0-10		0-10		0-10	
1. Taldean partaidetza aktiboaren jarrera mantendu du (taldearen funtzionamenduan lagundu du, bilerak prestatzen, entzuten, eztabaidak errazten eta dinamizatzen...).										
2. Taldearen eztabaidetan ideia berriak eta aipagarriak eman ditu.										
3. Taldeak burututako bilera guztietara joan da esleitutako zereginak eginda.										
4. Esleitutako lana egiteko behar bezain beste denbora eman du.										
5. Egiaztatutako iturrietatik kontsultatu du materiala (zehaztu).										